

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 19/2018 Foru Agindua, urtarrilaren 19koa, onartzen duena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu hauen aldaketa: abenduaren 27ko 761/2011, martxoaren 9ko 133/2005 eta urtarrilaren 20ko 13/2009 foru arauak, zeinen bidez onartzen baitira 193, 198, 216 eta 296 ereduak hurrenez hurren**

193 ereduak (pertsone fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapeko kapital higikorren etekin batzuen eta sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena) dauzkan diseinu gakoak aldatzen dira, higigarrien kapitalaren etekin zehatz batzuk esleitzea ahalbidetzeko, kasuan kasuko zerga oinarrian.

198 ereduak (finantza aktiboekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitortzea) dauzkan diseinu logikoetako hainbat eremu aldatzen dira, zabaldu eta bir-kodetzeko.

Bukatzeko, azpigako bat eranstean da 296 ereduak (ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako diru sarreraren urteko laburpena. Establezimendu iraunkorrik tarteko egon ez dela lortutako errentak, zenbait errenta hartzaileari buruzko informazioa eta identifikazioa hobetzeko) dauzkan diseinu logikoetan.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, onartzen duena 193 ereduak (pertsone fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapeko kapital higikorren etekin batzuen eta sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena), bai eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriz aurkezteko diseinu fisikoak eta logikoak ere.

Aldaketa hauek sartzen dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoetan:

12 gakoak aldatzen da, eta "IZAERA" eremuko "C hartukizun gakoari lotutako izaera" ataleko 13 eta 14 gakoak sortzen dira. Eremu horrek 2 erregistro motako (hartzailearen erregistroa) 93-94 posizioak betetzen ditu. Hona hemen haren edukia:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
93-94	Numerikoa	IZAERA
		C hartukizun gakoari lotutako izaera:
		01. Jabetza intelektualetik eratorritako etekinak edo errentak, hartzailea autorea ez bada.
		02. Hartzaileak egindako jarduera ekonomikoekin loturik ez dagoen jabetza industrialetik eratorritako etekinak edo errentak.
		03. Laguntza teknikoaren prestaziotik eratorritako etekinak edo errentak, prestazio hori jarduera ekonomiko baten esparruan gauzatu ezean.
		04. Jarduera ekonomikoak taxutzen ez dituzten ondasun higikor, negozio edo meategien errentamendu edo azpierreantamendutik eratorritako etekinak edo errentak.
		05. Kapitalen ezarpenak sortutako biziarteko edo aldi baterako errentak, baldin eta ez badira jaso jarauntsita, lagata edo beste oinordetza tituluren baten bidez eta ez badira kapitalizazio eragiketen edo bizi zein elbarritasun aseguru kontratu onoriozkoak.
		06. Irudia ustiatzeko eskubidearen edo hura erabiltzeko baimenaren edo eskuespenaren lagapenetik eratorritako etekinak, lagapen hori jarduera ekonomiko baten esparruan izan ezean, betiere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.
		07. Jarduera ekonomikoak taxutzen ez duten hiriko ondasun higiezin azpierreantamenduetan lortutako etekinak, baldin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.
		08. Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo hura erabiltzeko baimena emanda lortutako errentak, nahiz eta ustiapen ekonomikoetan sortutako sarrerak izan, baldin eta sozietateen gaineko zergarekiko subjektu pasibo edo establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarekiko zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.
		09. Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartuz eskuraturiko errentak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, promozio edo salmentari lotuta egon zein ez, baldin eta sozietateen gaineko zergaren kargapeko subjektu pasibo edo establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.
		10. Beste sozietate batzuetan administrari edo aholkulari erabixkipearen ondorioz lorturiko kontraprestazioak, baldin eta sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo edota establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira. Hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna bada, errenta hauek 190 erduan aitortu behar dira.
		11. Etekin salbuetsiak
		12. Zerga oinarri orokorrean sartu behar diren baina gako honen aurreko digituetan sartu ezin diren kapital higikorren beste errenta edo etekin batzuk.
		13. Aurrezkiaren oinarri orokorrean sartu behar diren baina gako honen aurreko digituetan sartu ezin diren kapital higikorren beste errenta edo etekin batzuk.
		14. Kapital higikorren beste etekinak edo gako honetako aurreko digituetan sartu ezin daitezkeen errentak, hartzailea ez bada pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zergaduna.

Bigarrena. Aldatu egiten da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baita 198 eredia (finantza aktiboekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitortpenarena); bai eta haren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Aldaketa hauek sartzen dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. "FUNTS PROPIOEN ZENBATEKOA" eremua aldatzen da, 276-286 posizioak betetzen dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Hona hemen haren edukia:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN DESKRIPIZIOA		
276-289	Alfanumerikoa	FUNTS PROPIOEN ZENBATEKOA		
		Baldin eta "H" edo "I" letrekin betetzen bada 2 erregistro motako (ERAGIKETA GAKOA) 134 posizioa, kapitala murrizteak eragindako akzio edo partaidetzei dagozkien edo jaulkipen prima banatuz gero aitortuak dauzkan berezko funtsen zenbatekoa idatziko da, kapitala murriztearen edo jaulkipen prima banatzearen data baino lehenago itxitako azkeneko ekitaldiari dagokiona.		
		276	Alfabetikoa	ZEINUA: Aurretik azaldutako zenbatekoa negatiboa bada, "N" adieraziko da. Beste edozein kasutan, zurienez bete behar da.
		277-289	Numerikoa	ZENBATEKOA: Lehenago adierazitako zenbatekoa idatziko da (koma hamartarrik gabe).
Eremu hau bitan banatzen da:				
		277-287	Kapitala murrizteak eragindako akzio edo partaidetzei dagozkien edo jaulkipen prima banatuz gero aitortuak dauzkan berezko funtsen zenbatekoaren zati osoa.	
		288-289	Kapitala murrizteak eragindako akzio edo partaidetzei dagozkien edo jaulkipen prima banatuz gero aitortuak dauzkan berezko funtsen zenbatekoaren zati hamartarra.	

Bi. "LEHENAGO BANATUTAKO MOZKINAK" eremua aldatzen da, 287-297 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Hona hemen haren edukia:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN DESKRIPIZIOA		
290-302	Numerikoa	LEHENAGO BANATURAKO MOZKINAK		
		Baldin eta "H" edo "I" letrekin betetzen bada 2 erregistro motako (ERAGIKETA GAKOA) 134 posizioa, kapitala murrizteko eragiketa egin edo jaulkipen prima banatu lehen banatutako mozkinen zenbatekoa idatziko da; hau da, aitortuaren akzio edo partaidetzei dagozkien berezko funts horietan dauden erreserbetatik datozen mozkinen zenbatekoa.		
		290-302	Numerikoa	ZENBATEKOA: Lehenago adierazitako zenbatekoa idatziko da (koma hamartarrik gabe).
				Eremu hau bitan banatzen da:
		290-300	Zenbatekoaren zati osoa.	
		301-302	Zenbatekoaren zati hamartarra.	

Hiru. "ERRESERBA XEDAEZINAK" eremua aldatzen da, 298-308 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Hona hemen haren edukia:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN DESKRIPIZIOA		
303-315	Numerikoa	ERRESERBA XEDAEZINAK		
		Baldin eta "H" edo "I" letrekin betetzen bada 2 erregistro motako (ERAGIKETA GAKOA) 134 posizioa, aitortuari dagozkion akzio edo partaidetzak eskuratu zirenetik legez xedaezinak diren eta "BEREZKO FUNTSEN ZENBATEKOA" eremuan, 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) 276-289 posizioetan, idatzitako berezko funtsen zenbatekoan sartuta dauden erreserben zenbatekoa idatziko da.		
		303-315	Numerikoa	ZENBATEKOA: Lehenago adierazitako zenbatekoa idatziko da (koma hamartarrik gabe).
				Eremu hau bitan banatzen da:
		303-313	Zenbatekoaren zati osoa.	
		314-315	Zenbatekoaren zati hamartarra.	

Lau. II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) 309-500 posizioak ("ZURIUNEAK") 316-500 posizioetara ("ZURIUNEAK") aldatzen dira.

Hirugarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Agindua. Foru agindu horrek hauek onartu zituen: 216 eredua (Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe eskuratutako errentak. Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak. Aitorpen-sarrera agiria) eta 296 eredua (Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako sarreren urteko aitorpena).

Ondorengo aldaketa hauek egiten dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Aginduaren III. eranskinean, zeinak jasotzen baititu 296 ereduan eman beharreko informazioa daukaten fitxategietara egokitu beharreko diseinu fisiko eta logikoak, baldin eta eredu hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri bidez aurkeztu behar bada: Azpigako berri bat sartzen da, "11"; hortaz, berriz ere idazten dira "Azpigako" eremua, 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa, aitortuak) 102 eta 103 posizioak, betetzeko jarraibideak. Hona hemen nola idatzita geldituko diren:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPIZIOA
102-103	Numerikoa	<p>AZPIGAKOA</p> <p>Atxikipena edo konturako diru sarrera kalkulatzeko kontuan hartutako inguruabarrei dagokien azpigakoa hautatu behar da; hona zerrenda:</p> <p>01. 21/2014 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenaren, 25. artikuluko tasa orokor edo tributazio eskaletan egindako atxikipena.</p> <p>02. Hitzarmen bateko zergapetze mugak aplikatuz egindako atxikipena.</p> <p>03. Barruko salbuespena (21/2014 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenaren, 14. artikulua).</p> <p>04. Hitzarmen baten ondoriozko salbuespena.</p> <p>05. Atxikipenik ez, zergadunak edo haren ordezkariak zerga alde zurretik ordaindu duelako.</p> <p>06. Aitorpeneko hartzailea jabetza intelektualaren gaineko eskubideak multzoan kudeatzen dituen atzerriko erakundea da eta atxikipena hitzarmen bateko zergapetze muga edo salbuespena aplikatuta egin da.</p> <p>07. Hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna da eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren tributazio araubide berezian dago (araubide hori PFEZaren foru arauaren 4.3 artikuluan aipatzen da).</p> <p>08. Aitorpeneko hartzailea Espainiako talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzen dituen atzerriko erakundea da eta atxikipena hitzarmen bateko zergapetze muga (ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 25. artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa) aplikatuta egin da.</p> <p>09. Aitorpeneko hartzailea Espainiako talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzen dituen atzerriko erakundea da eta atxikipena ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 25. artikuluan ezarritako karga tasa aplikatuta egin da.</p> <p>10. Konturako diru sarrera, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 36.2 artikuluan aipatzen direnetakoa, errentak esleitzeko araubidean dagoen erakunde batek egina egoiliar ez den kide bati esleitutako errentari dagokionez.</p> <p>11. Hartzaile aitortua da zergadun bat ordaintzaileari egiaztatu diona ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 32. artikulua jasoriko prozedura erabili duela.</p> <p>Aurreko zerrendako 06, 07, 08, 09, 10 eta 11 zenbakietan azaldutako kasuetan berariazko azpigako hauek ezarri behar dira nahitaez, gainerakoak aintzat hartu gabe.</p>

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 19a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTINEZ**